

## Revolving kredituari buruzko kontratu aurreko informazio gehigarria (banku-zerbitzuen gardentasunari eta bezeroaren babesari buruzko urriaren 28ko EHA/2899/2011 Aginduaren 33 ter artikulua)

### AliExpress kreditu-txartela

AliExpress kreditu-txartelei aplikagarria.

Oharra: Hasierako hizkia letra larriz idatzitako hitzak edo hitz-multzoak txartel honetako Europako Informazio Normalizatuko (INE) dokumentuko 4. ataleko glosarioan definituta agertzen dira.

<p><b>Zure txartelaren kreditu-linea eta ordainketa-modalitatea</b></p>	<p>Zure txartelaren kreditu-lineak izaera errebolbentea edo <b>“revolving”</b>-a du.</p> <p>Revolving kredituen ezaugarri nagusia kreditu-muga baten ezarpena da. Muga horren erabilgarritasuna bat dator, hasiera batean, muga horrekin. Muga hori murriztu egiten da karguen arabera (erosketak, kutxazainetan eskudirua erabiltzea, eskudirua transferitzea, interesen eta gastuen likidazioak eta abar), eta ordainketen bidez berritzen da (aldizkako ordainagiriaren ordainketa, erosketen itzultzea, eta abar). Beraz, txartelaren titular gisa ordaintzen dituzun hileko kuotaren zenbatekoak txartelaren kreditu erabilgarrian sartzen dira berriro.</p>
<p><b>Zer gertatzen da mugaeguneratuta dauden, galdagarriak diren eta zuk ordaindu ez dituzun kopuruekin?</b></p>	<p>Bankuak ez du kapitalizatzen interes, komisio eta gastuen kopururik, ez eta ordainketa-aseguruen primarik ere, mugaeguneratuak, galdagarriak eta ordaindu gabeak izan badira.</p>
<p><b>Ezarritako ordainketa-modalitatearen aldaketa, bai eta hura gauzatzeko baldintzak ere</b></p>	<p>Txartelaren titularra zaren aldetik, une bakoitzean zure beharretara hobekien egokitzen den kreditu-linearen erabilera ordaintzeko modalitatea aukeratu behar duzu. Gainera, Fakturazio-Aldi bakoitzerako aukeratutako ordainketa-modalitatea aldatu ahal izango duzu, ohiko komunikazio-bideen bidez WiZinki jakinarazita, eta ezarrita duzun hileko kuota Ordaintzeko Eguna baino gutxienez lau (4) egun baliodun lehenago. Aldaketarik egiten ez bada, ordaintzeko modua aurreko Ordainketa Datan erabilitakoa izango da.</p> <p>Kreditu-txartela eskatu edo/eta aktibatzeko unean ordainketa-modalitate bat berariaz adierazi ez baduzu, ordainketa osoaren modalitatea aukeratzen duzula ulertuko da.</p> <p>Zure aldetik ordaintzen ez baduzu, WiZinkek ordainagiriak Helbideratzeko Kontu Korrontera igortzeko eskubidea izango du, Gutxieneko Ordainketari dagokion zenbatekoarekin, baldin eta aukeratutako zenbatekoa hurrengo Fakturazio Aldia amaitu aurretik ezarritako ordainketa-modalitatearen arabera ordaintzen ez baduzu.</p>

**Ezarritako ordainketa-modalitatearen aldaketa, bai eta hura gauzatzeko baldintzak ere**

Egoera horretan, Bankuak ordainagiriak igortzen jarraitu ahal izango du, Gutxieneko Ordainketari dagokion zenbatekoarekin, harik eta ordaintzeko dauden zenbateko guztiak ordaintzen dituzun arte. Une horretan, ordainagiriak, ezarrita zenuen ordaintzeko moduaren arabera igorriko dizkizugu berriro.

Gutxieneko ordainketa hori hileroko kalkulatu da, kopuru hauetako handiena bezala: i) 40€ edo; ii) Likidazio-Datan kontzeptu hauek batuta ateratzen den kopurua:

- aurreko Fakturazioaren Gutxieneko ordainketa, ordaindu gabe badago; gehi
- Ordainketa Geroratuko Zerbitzuen kuota, gehi
- Fakturazio-aldian sortutako interesak, komisioak eta gastuak eta ordainketa-aseguruen primak, gehi
- Kreditu Erabiliaren %2,5a.

Aurreko kalkulua aplikatzearen ondorioz Gutxieneko Ordainketa 40€-koa bada, aurreko kontzeptuez gain, ordaindu gabe dauden aurreko Fakturazio Aldiei dagozkien interesen, komisioen eta gastuen, ordainketa-aseguruen primen eta Erabilitako Printzipalaren zenbatekoak sartuko dira.

Kreditu-linearen muga gainditzen bada, aurreko kontzeptuetan sartuko dira horietako bakoitzetik egoera horretan egon daitezkeen zenbatekoak, eta, gainera, Kreditu-linearen mugaren gainetik dagoen Erabilitako Printzipalaren zatia Gutxieneko Ordainketan sartu ahal izango da, bai eta aurreko Fakturazio Aldiei dagozkien eta ordaindu gabe dauden interesak, komisioak, gastuak eta ordainketa-aseguruen primak ere.

**Adibide adierazgarriak, ordaintzeko modu bakoitzerako Espainiako Bankuaren 3/2022 Zirkularraren arabera**

Espainiako Bankuaren 3/2022 Zirkularraren adibide adierazgarriak. Ordainketa geroratua duen txartel baten funtzionamendua hobeto uler dezazun, ordaintzeko modu bakoitzerako adibide bat jarriko dizugu:

**1 - Inguruabar hauek kontuan hartuta:**

- emandako kreditu-muga 1.500€-koa da;
- denboraren zenbaketa 365/366 eguneko urtea oinarri hartuta;
- Emandako kreditu-mugaren erabilera osoa Kreditu-txartelaren kontratua indarrean dagoen lehen egunetik;
- Ordaintzeko modua: zenbateko finkoko Ordainketa Geroratu malgua, kontuan hartuta bezeroak Gutxieneko Ordainketarekin bat datorren kopuru finko bat aukeratu duela, aurreko atalean definitu denaren arabera;
- ITN %21,58 eta UTB: %23,85. WiZinkek aplikatutako zor-tasa eta komisorik altuenak erabili dira, kontratuan aurreikusitako xedapen-modu arruntenean (erosketetarako xedapena). UTBa handiagoa izan liteke funtsak eskuratzeko gainerako aukeretarako;
- kredituaren indarraldia adostutako aldiaren, eta alderdien betebeharren betetzea, kontratu honetan adostutako baldintzetan eta epeetan;
- interes-tasa nominala eta gainerako gastuak hasierako mailan mantentzea.

Kasu horretan, Titularrak hileko 50 kuota ordainduko lituzke; horietatik, lehenengo 19 kuotak zenbateko beherakorrekotako izango lirateke, 64,48€-tan hasi eta 40,87€-tan amaituz, eta kuota horretatik aurrera 40€-ko kuota konstantea, 10,39€-koa izango den azkena izan ezik. Zordundutako zenbateko osoa 2.195,19€-koa izango litzateke (horietatik 695,19€ interesak izango dira).

## **2 - Ordainketa geroratuko zerbitzuen kasuan:**

a) Plan Aplaza Zerbitzurako. Abagune hauek ematen badira:

- zerbitzu honetan oso-osorik eskuragarri dagoen 1.500€-ko kreditu-muga txartelean;
- denboraren zenbaketa 360 eguneko urtea oinarri hartuta;
- Emandako kreditu-mugaren erabilera osoa Kreditu-txartelaren kontratua indarrean dagoen lehen egunetik;
- Kapitala eta interesak barne hartzen dituzten kuota finko bidezko ordainketa;
- ITN %21,58 eta UTB: %23,85. Geroratutako ordainketa-zerbitzu honetarako WiZinkek aplikatutako zor-tasa eta komisio altuenak erabili dira.
- Epea: 12 hilabete, hileroko amortizazioekin;
- kredituaren indarraldia adostutako aldian, eta alderdien betebeharren betetzea, kontratu honetan adostutako baldintzetan eta epeetan;
- interes-tasa nominala eta gainerako gastuak hasierako mailan mantentzea.

Kasu horretan, Titularrak hileko 140,09€-ko 11 kuota ordainduko lituzke, eta 140,07€-ko azken kuota bat. Urte amaieran, guztira, 1.681,06€ ordainduko lituzke (horietatik 181,06€ interesak izango dira).

b) Kuota finkoetan ordainduz eskudirua Intsuldatzeko Zerbitzurako. Abagune hauek ematen badira:

- zerbitzu honetan oso-osorik eskuragarri dagoen 1.500€-ko kreditu-muga txartelean;
- denboraren zenbaketa 360 eguneko urtea oinarri hartuta;
- emandako kreditu-mugaren erabilera osoa Kreditu-txartelaren kontratua indarrean dagoen lehen egunetik;
- Kapitala eta interesak barne hartzen dituzten kuota finko bidezko ordainketa;
- ITN %20,93 eta UTB: %23,06. Geroratutako ordainketa-zerbitzu honetarako WiZinkek aplikatutako zor-tasa eta komisio altuenak erabili dira.
- Epea: 60 hilabete, hileroko amortizazioekin;
- kredituaren indarraldia adostutako aldian, eta alderdien betebeharren betetzea, kontratu honetan adostutako baldintzetan eta epeetan;
- interes-tasa nominala eta gainerako gastuak hasierako mailan mantentzea.

Kasu horretan, Titularrak hileko 40,52€-ko 59 kuota ordainduko lituzke, eta 40,61€-ko azken kuota bat. Urte amaieran, guztira, 2.431,29€ ordainduko lituzke (horietatik 931,29€ interesak izango dira).